

## 5. Kanalak:

- **Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

Internet izango da bezeroekin harremanetan jartzeko biderik egokiena, azkenean, *City parking* mugikorreko aplikazio bat da eta.

Beraz, komunikazio-kanalerako aplikazioan arduradunen gmail kontua eskuragarri egongo da; horrela, edozein arazoren aurrean laguntza jasotzeko aukera izango dute bezeroek. Horrekin batera, Instagram kontu bat ere sortuko da, berriro ere, bezeroekin harremanetan jartzeko helburuarekin.

Azkenik, bai salmeta-kanala eta baita banaketa-kanala ere online egingo dira. Saltzen ari garena zerbitzu bat denez, aplikaziotik egingo da ordainketa eta zerbitzua erabili ahal izatea.